

## IRITZIA

## » zuzendariari

BERRIAk irakurleen eskulitzak plazaratzen ditu. Tarte oikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAk moztzeko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugaide Kultur Parkea, 30012 Andoain. [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info)

## Badator txotx denboraldia, badoa pikutara Euskal Herriko sagardoa

Badira urte batzuk amonaren baserrikoa ez zen sagardoa lehen aldiz edateko aukera izan nuen jate txetxe batean, eta dastatu orduko sinetsi ezinik gelditu nintzen hura sagardoa zenik eta sagardoa deitzen ziotenik. Mutil koxkorren artean iritzi horretako bakarra nintzenez, eta baita baserriko sagardoa edaten nuen bakarra ere ziur aski, isildu beharrean izan nintzen. Urteak aurrera, amonaren baserriko sagardoa zaintzeko dentsimetro bat iritsi zen gure etxera, sagardoaren edo muztioaren gozotasuna neurtu ahal izateko. Eta baita oso ezaguna den sagardotegi bateko muztioa ere, erxeko kupelean hartzitu eta txotxetik edateko ekarri zuen anaiaren koadrilak. Berriz ere nire harriadura muztio haren gozotasuna neurtu genuenean, amonaren baserriko muztioarekin alderatuz gozotasunaren erdirik ez zuen. Gauzak ulertzen hasi nintzen orduan.

Aurreko aste batean Eroski supermerkatuan eskaintzen diren sagardo bakoitzetik botila bana eskuratu nuen, sagardotegi oso eza-

gunenak guztiak. Afalorduan, amonaren baserriko sagardoaren orde Eroski-koak mahairatzen joan naiz banan bana astean zehar. Eguneke botila bakoitzaren erdia gutxienik soberan gelditu zaigu, eta guztiak probatzeko aukerarik ez dut izan etxekoak aspertu aurretik.

Amonaren baserriko sagardoa azokan saltzeari aspaldi utzi behar izan zion orde osabak, Eröskiko sagardoaren prezioan saltzeak ez omen zuelako merezi. Sagasti gehienak bertan ber joan ziren ondorioz amonaren baserrian, inguruko beste baserrietan bezala, sagardotegi handiek merke ekartzen baitzuten sagarra kanpotik.

Euskal Herriko sagarra, sagastiak eta sagardoa badoaz pikutara. Eta datorren txotx denboraldian inork ez dezala pentsa sagardotegira joan eta euskal herriko sagardoa edango duenik, naiz eta bertsolariak bertsoak abestuko dituzten bertan, jendeak euskaraz hitz egingo duen eta denboraldi hasieran aureskuak dantzatuko den. Euskal herrian egindako sagardoa izango da noski, koka kola egiten den bezalatsu.

Orain ulertzen dut baserriarrek zergatik botatzen dituzten lurrera esne ontziak supermerkatuen au-

rrerak eta arrantzaleek arrain kaxak itsasoratzen.

Eta konturatzen naiz arrotzak nola nagusitzen zaizkigun etxean, bai sagarrak, bai arrainak, bai okelak, bai esneak eta baita hizkuntzak ere.

Aitor Unanue Albizuri  
Azpeitia

## Musika arazoak

Ertain Mailako (Easo) eta Goi Mailako (Musikene) Kontserbatorioen zuzendaritza arazoak direla eta, ertain mailatik Donostiako goi mailara pasa garen ikasleek gure eskubide batzuk galdututa ditugu. Donostiatic kanpo ikasten dutenek, berriz, eutsi egiten diete eskubide horiei.

Musikenetik kanpo ikasten duten ikasle ohiak Ertain Mailako kontserbatoriorian libre geratzen diren gelak erabili ditzakete; bertako ikasleek lehentasuna dute, noski, baina ezin dituzte gela hauek erabili Musikeneko ikasle ohiak, dirudenez ikasle ohi ezberdinak garelako. Easoko zuzendaritzak Musikenekoek arratsaldetan zarata asko egiten dugula dio aitazki moduan. Dirudenez, Holandan eta Zumarragan ikasten duten gazteak zarata gutxiago egiten dute gela hauetan. Horrelako laguntza eskaitzen

digute zuzendaritzakoek bertan gure bizitzako sei urte (bizitza erdia ia) eman dugunoi.

Nikolas Zubia Herrero  
Donostia

## Euskadi eta Nafarroa

Ostegunean emakumeek jasotzen duten tratu txarren kontrako eguna izan zen eta horren berri ematen ari zirela EITBko telebistek zein irratiek, denek zioten sei emakume hil direla aurtien «Euskal Autonomia elkartearen eta Nafarroan». Zuzena da, baina ez al litzateke zuzenago, hau da, ez zatikatzaileago, Hego Euskal Herrian esatea? Zergatik aritu behar dugu espainolek behartu gaituzten komunitatez komunitateko kontu horren gainean? Eta Euskal Herri osoko datuak izanez gero, hamar puxtari EITBkoentzat. Baina, zoritxarrez, susmoa dut EITBkoen partetik intenzionalitate txarren bat badagoela «Euskadi eta Nafarroa» nahita bereizteko. Bereizketak zentzurik ez duenean ere. Eta bukatzeko zer dela eta Espainiako Gobernuari «gobernu zentrala» deitzea?

Xabier Castillo  
Iruñea

## » larrepetit

## Urteurrena



JON BENITO

Asteazkena da. Azken taberna itxi-ta hartu dugu erdialdetik urrun-tzen gaituen bidea. Bazterretik goaz, errekaeren ertzetik, trenbidearen azpitik gora. Edanak eta pentsuak eragin-dako euforia doitzen du maldak. Heriotza hi-ritik urrun dago.

Isilik goaz, ia musika egiteraino isilik. El-karren berri izala.

Iritsi gara hilerrira. Gure oinotsak entzu-ten ditugu bakarrik. Zer ari haiz pentsa-zen? galdetu dit, oraindik nitxora helz-ke.

Inoiz bizi izan ez balitz bezala dela, erantzun diot. Ez naizela gogoratzen bere begiez, bere keinuez. Errazegi estali dugu-la berak utzitako hutsunea. Baina batzue-tan bere izena erortzen zaidala, berarekin egindako gauzez gogoratzen naizela: irai-leko azken jaietz, adibidez. Mailu bat beza-la dela irudi hori, ohean nagoea erortzen zaidala, lagunekin nagoenean, gustura na-goela. Eta gogor kolpatzen nauela. Inksi-dore moduko bat dela, eta antzeko zerbat gertatzen zaidala kartzelan dauden lagu-nekin, edo etxean ez daudenekin.

Nitxoaren aurrean egon gara, hildako lagunaren argazkiari beha ez dakit zenbat denbora, norbere pentsamenduetara bil-duta. Ez dugu ahaztu nahi. Beherantz egin dugu gero aparkalekurantz. Eta bidean kantu ezagun bat abestu dugu, nahiz eta hotzak zurrin joan.

Kotxean sartu naiz. Irratia piztu dut. Zu-rik geratu da kanpoan, lurrera iltzatu balu-te bezala. Leihoa jaitzi dut, keinu bat egin diot barrura sartzeko. Haizeak eta hotzak ezin dituzte barruko mamuak eraman.

## » galde-eskeak



JOSE LUIS ALVAREZ  
ENPANTZA,  
TXILLARDEGI  
IDAZLEA

## Zein idazlek izan dute eraginik handiena zure literaturgintzan?

Amaita Oianguren

Zail da erantzutea. Gaztaroen Unamuno irakurri nuen eruz: bai bere libururik gehien-tan, bai bere prentsa-artikulu askotan. Eta Pio Barojaren nobela asko ere bai (oso maite dut, bidenabar). Garai hartako irakurketak izan ziren Thomas Mann, Kafka, Koestler, eta Knut Hamsun norvegiarra bereziki. Gero-ko urteetan, deserrialdian, frantses ez irakurri nuen gehienik: Camus, Sartre, Andre Gide, Sagan, Queneau, Julien Gracq. Eta az-keneko urteetan, Barojaz gain, Juan Carlos Onetti urugaitar beltza daukat beti mahai-aren gainean. Betarik ez, ordea, ditudan mila hutsuneak betetzeko. Ezin denetara hel: giza patua.

Azaroaren 30etik aurrera **Roge Blasco** kazetaria izango da **Galde-eskeak** ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info) helbide elektronikora.

## » www.berria.info

## Batasunaren ekarpena baliagarria iruditzen zaizu bakea lortzeko?

BAI	% 85
EZ	% 15

Ordua da bake proposamen baterako eta bakera heltzeko, denbora aurrera doa, hilabeteak, urteak, hamarkadak... eta gu beti berdin, ez atzera ez aurrera. 20 urte hauetan herrian, eskolan, gurasoengandik... asko ikasi ahal izan dut eta Euskal Herria maitatuz hezi izan naiz, ez dut nahi handiagorik gure herria libre eta bakean ikusterik baino. Possible da baina denok batera egin behar dugu lan horretan, egin dezagun gure etorkizunagatik, ondorengoak libre eta bakean bizi daitezten. **Naia**

Oso ekarpen positiboa iruditzen zait, baina aurrera egiterik ez duena gainontzekoek urratsik ematen ez badute. Zoritxarrez, gainontzeko alderdiak halako gupril batean sartzeko ez daudela prest uste dut, Batasunaren ilegalizazioaz geroztik boterea nola banatu oso kezkatuak baitaude. **Miren**

## » hitz beste

## Kontsumitzen

ANJEL LERTXUNDI

Izenik oroitzen ez diodan (eta, hartara, propagandarik egin ezin diodan) beste saltoki-gune erraldoi horietako bat za-baldu berri dute Bizkaiko partean. Gora eta gora egiten ari da, ez dakit Euskadi, baina bai gure kontsumorako grina. Ez gara pertsona, ez gara irakurle, ez gara jatea edo janzea bezalako ekingintzen pre-miadun: erosle gaituzte, erosketak bizi gaitu. Produktu batek zenbat erosle di-tuen, huraxe dugu iparrorantz. Produktu gisa planteatzen dugu bizitza ere: seme-alaben ikasketek errentagarritasuna emateko, etekinen araberako kar-rrera ikasi behar dute; etekinen gaitzak gidatzen du gure bikote-bizitza. Maita-suna edo elkartasuna ez daude salmen-ten ranking-ean, zertaz hitz egin dezake ranking-ean ez dagoen produktu baten erosleak...

Merkatari-gunetik merkatari-guneko bidean errores, hor goaz gure diru eta garunak kontsumoak kontsumitu arte.